

## Lehen Hezkuntza 3.zikloa (10-12 urte):

Erakusketa girotura sartzen direnean, binaka jartzeko esango diegu eta bikote bakoitzari kolore jakin bateko orrialdeak emango dizkiegu eta baita boligrafoa edo arkatza. 5-10 minutu izango dituzte liburuetatik bueltatxo bat eman eta ikusten duten guztia apuntatzeko; deigarria egiten zaien guztia (idazleak, argitaletxeak, izenburuak, irudiak, irudien esanahia...).

Ondoren, kolore berdina duten bikoteak batuko dira eta horren arabera egingo dira taldeak (horia, urdina, berdea, gorria, laranja eta zuria).

Galdera-erantzunen jolasa taldeka:

- Aipatu Elkar argitaletxeko bi liburu. → *MORADERO / SUGAAR / KARLISTEN ALTXORRA / ARGIXORGIN / IPURTARGIEN HERRIAN / ORKESTRA LURTARRA / RITA ETA ALKIMISTAREN AMETSA*
- 4 argitaletxeren izenak idatzi → *ELKAR / IBAIZABAL / EREIN / DESCLÉE / MEZULARI / AIZKORRI / SUSAEATA...*
- Zein portadatan azaltzen dira animalia batzuk Frankfurtoko zooan barrabaskerietan? → *KANGURUAK ZOOTIK IHESI*
- Voltaire kalean, hainbat abentura izaten dituzte. Kasu honetan, zer aurkitu dute teilatupean? → *ESKELETO BAT TEILATUPEAN*
- Argitaletxe batek badu animalia baten irudia duen bilduma bat. Zein da animalia hori? Edota zein da bildumaren izena? → *XAGUXAR bilduma*
- Misterioz eta umorez betetako dimentsioa da *ZONBIOGUNEA*. Eta oraingoan, gordeleku batean, zer aurkitu dute? → *FARAOIA (FARAOIAREN GORDELEKUA)*
- Zein libururi dagokio hau? “Eta zuk zer? Seguru zuk ere noizbehinka gezurrak esaten dituzula. Nik baino gehiago? Nire lagunek baino gutxiago?” → *NIRE LAGUNEN SEKRETUAK*
- Zein da portada hau duen liburuaren izenburua?



→ *MORADERO*

- “Bada neskato bat, irakurri berri dituen istorioak ahoko zuloatik kanpora botatzen dituena eta bere inguru osoa fantasiaz betetzen duena.” Liburu horren portadan, bere ahotik irtendako pertsonaiak azaltzen dira; sorgina, pirata.... Zein da liburuaren izenburua? Pista: izenburua eta neskatoaren izena berdinak dira eta berak duen berezitasun horrekin du zerikusia. → *BERBONTZI*



## ERAKUSKETA GIROTUAK 2014

- Alex eta Irati Baztango familia batera joango dira udan eta bertan, 200 urte lehenago galdutako altxo baten bila jartzea tokatuko zaie. Norena zen altxor hori? → *KARLISTEN ALTXORRA*
- IGGY, zein tributako mutila da? → *IGGY, URK TRIBUKO MUTILA*
- Zer dira gure liburuetako zonbiak? → *ZONBI EHIZTARIAK*
- Zein taldek jolasten du saskibaloian eta beti irtetzen dira garaile? → *ARRANO BELTZAK BETI GARAILE*
- “Mondrago” bildumako liburu bi daude eta biek egiten diete zuhaitzen bati erreferentzia. Zein zuhaitz dira horiek? *TULE / BANYAN*
- Argixorgin liburuan, zein da azalean agertzen den irudia? → neskatoa + xaguzaharra
- Autobusa hegan ageri den liburuaren izenburua, zein da? → *IPURTARGIEN HERRIAN*